



Ugarte kalea, 3  
01440 IZARRA  
Tel: 945 18 70 53  
e-maila: zuzendaritza@izarraherrieskola.eus

# **IZARRA HERRI ESKOLAKO PROIEKTU DIGITALA**

**(2024/2026)**

# Aurkibidea

|                                              |    |
|----------------------------------------------|----|
| 1.- SARRERA                                  | 3  |
| 1.1. IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK. TESTUINGURUA | 3  |
| 1.2.- Azpiegiturak                           | 4  |
| 1.3.- Proiektuaren justifikazioa             | 5  |
| 1.4.- Elaborazio prozesua eta lan-taldea     | 5  |
| 2.- IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA         | 6  |
| 3.- HELBURUAK ETA EKINTZAK                   | 6  |
| 4.- IKASTETXEAN ERABILITAKO APLIKAZIOAK      | 9  |
| 5.- PROIEKTUAREN EBALUAZIOA ETA MEMORIA      | 12 |

## **1.- SARRERA**

Ikastetxearen Proiektu Digitala (IPD) baliabide digitalen erabilera erraztu eta sustatzeko tresna bat da, zentroko irakas, ikas eta kudeaketa prozesuetan.

Zentro osoari zuzendutako proiektua da, koherentzia emateko eta teknologien erabilera gidatzeko.

Ikastetxeek potentzial digitala garatzeko erreferentzia Digitaliki Eskudunak diren Hezkuntza Erakundeetarako Europako Markoa (DigCompOrg) da.

Ikastetxearen Proiektu Digitalaren bitartez Izarra Herri Eskolak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabileraren egoera ebaluatu zuen 2023/24 ikasturtean, emaitza horiek kontutan hartuta, proiektu hau garatu da. Gure zentroa etengabe ikasten ari den erakunde bat da, eta horretarako, beharrezkoa da digitaliki kompetentea izatea.

Ikastetxeko plan honetan helburuak zeintzuk diren zehaztuko dira eta helburu horiek lortzeko aurrera eramango ditugun ekintzak ere.

### **1.1. IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK. TESTUINGURUA**

Izarra Herri Eskola, Izarra herrian eta Urkabustaiz udalerrian kokatuta dago. Arabako mendebaldean aurkitzen da. Ikasle guztiak ez dira Urkabustaizkoak, beste udalerrri batetik etortzen dira, Kuartangotik eta gutxi batzuk Murgiatik.

Eskola txikia da, ikasle kopurua 160-180 bitartekoa izanik, heren bat gutxi gora behera garraiatua da. Honek suposatzen du bi autobus eta taxi bat erabili izan ohi direla normalean.

Lerro bakarra du eta gela bakoitzean 20 ikasle inguru daude. 2 urteko gelatik 6. mailara arteko ikasketak burutu daitezkelarik. Laguntza-premia bereziak dituzten ikasleen batez bestekoa %16-17koa da. Ikasle bakoitzari erantzunik doituena ematen zaio eta bizi diren taldeetan naturaltasunez jorratzen da.

Azken urteetan ikasle asko etorri dira eskolara beste lurraldeetatik (kultura eta hezkuntza anitzekin). Afrikaren iparraldetik batez ere (Maroko eta Sahara, alegia), une honetan beste lurraldeetatik etorritako 35/38 familia inguru ditugu.

D ereduko ikastetxea da. Familia hizkuntza nagusia gaztelania eta arabiera da eta familia hizkuntza euskara dutenak gutxiengoa da.

Ikasle gehienek jantoki zerbitzua erabiltzen dute %85-90 alegia.

Familien maila sozio-ekonomikoari dagokionez erdi maila batean kokatuko genuke. Ikasleriaren ia %90a bekaduna baita.

Landa ingurunea izanik, nekazari jarduera bada ere, biztanle gehienek hirira jotzen dute lanera.

Ikastetxeko ikasleen absentismo-indizea oso txikia.

## **1.2.- Azpiegiturak**

Izarra Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan, musika gelan, liburutegian, HIPI (hizkuntza indartzeko irakaslea) gelan eta ingelera gelan ordenagailua eta arbela digitala daude.

1., 2., 3. eta 4. mailak pantaila interaktiboez hornituta daude.

Haur Hezkuntzako gela guztietan irakaslearentzat ordenagailu bat dago. 2 eta 3 urteko gelan arbela digitalak daude eta 4 eta 5 urteko geletan pantaila interaktiboak jarri dira.

4., 5. eta 6. mailetan minieramangarriak daude.

WIFI antenak daude eskolan zehar.

Bestalde, informatika gelan 11 ordenagailu berri daude. Gela hau erabiltzeko ordutegi bat egin da eta irakaslegoaren esku gelditzen da noiz, nola eta zertarako erabili bertan dauden ordenagailuak.

Irakasle gelan mahai gaineko ordenagailuak daude, eta zuzendaritzan holako beste hiru.

Orotara, irakaslegoak lan egiteko 5 ordenagailu eramangarri daude.

Bestalde, IKT batzordeak plana dinamizatzeko eta errekursoak gestionatzeko ardura izango du.

## **1.3.- Proiektuaren justifikazioa**

Proiektuak, besteak beste, ikastetxearen konpetentzia digitala hobetzeko garatuko diren jarduerak jasoko ditu. Azken urteetan hezkuntza-prozesuak hobetzera zuzenduta egon diren hainbat baliabide, tresna eta zerbitzu inplementatu eta egonkortu dira gure eskolan. Edonola ere, beharrezkoa da une honetan teknologiaren garapenari perspektiba globalago batetik ekitea, ikastetxea

eraldaketa-unitate bezala ulertuz eta bertako zuzendaritza taldeak bultzatzen dituen hobekuntza planak diseinatuz.

Digitalki Eskudunak diren Hezkuntza-erakundeetarako Markoak bide ematen digu gure zentroko errealitatea aztertzeke eta etorkizunera begirako ekintza planak diseinatzeko, perspektiba global batetik beti ere.

Gure eskola etengabe aldatzen ari den mundu bateko, geroz eta digitalizatuago dagoen jendarte bateko partaide da. Hortaz, IZARRA HERRI ESKOLAK erantzun egin behar die gizartetik eta lan-merkatutik heltzen zaizkion eskaerei, etorkizuneko hiritarrak ingurune oso digitalizatu batean ondo moldatu daitezen prestatu ahal izateko, betiere eskaintzen ditugun etapetara egokituz.

Gaur egun ezinbestekoa da teknologia erabiltzea gure ikastetxeko praktiketan, bai antolamendu-alderdiei dagozkienak bai irakas-ikas prozesuetan kokatzen direnak.

Plan honen bitartez zera erdietsi nahi dugu:

- Zentroaren egoera ebaluatzea, IKTen erabilerari dagokionez.
- Proiektu Digital batek gure eskolako estrategia digitala planifikatzeko duen potentziala aitortzea.
- Ikastetxea etengabe ikasten ari den erakunde bat bilakatzea; horretarako, digitalki konpetentea izan behar da ezinbestean.

#### **1.4.- Elaborazio prozesua eta lan-taldea**

IKT batzordea 4 pertsonen osatuta dago, hauen artean bat batzorde honen arduraduna izango da. IKT Batzordea astero biltzen da beharrak aztertzeke eta erabaki egokiak hartzeke.

Proiektu Digitalak, Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari (IUP) egiten dion ekarpena hainbat esparruetan:

- Ikas-irakaskuntza prozesuan, teknologia berriek ematen dituzten baliabideen erabilera sistematizatzea.
- Ikasleak tresna erabilgarriez hornitzea, bere ezagutza informatikoak eta bere formazioa hobetzeko.
- Gure metodologia eguneratzea, berritzea eta dinamizatzea ditugun errekurtsu digitalak eta editorialek ematen dizkigutenak erabiliz.
- Eskolako dokumentuak digitalizatzea eta eragile desberdinekin partekatzea.
- Eskola-familia komunikaziorako ikasle berrien familia bakoitzeko helbide elektronikoa sortzea.
- Irakasleen arteko komunikazioa eta lana Google aplikazioen bitartez egitea.
- Pixkanaka, ikastetxeko material teknologikoa berritzea eta ordezkatzeta.
- Eskolako web orrialdea familiei gerturatzeko martxan jartzea.

- Digitalizazio plana egitea.
- Digitalizazio planean zehaztutako jarduerak aurrera eramane.
- Formazioa jaso klaustro osoak, ezarritako digitalizazio profila lortzeko.

## 2.- IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

2022-2023 ikasturtearen hasieran, eskolaren egoera teknologikoa aztertzeko bi galdetegi pasatu zitzaizkion eskolako agente desberdinei, *SELFIE for school online* (Europar Batzarretik dator) eta AMIA galdetegia.

Izarra Herri Eskolako klaustroko irakasle guztiei, zuzendaritza-taldeari eta 4., 5. eta 6. mailako ikasle guztiei galdera komun batzuk luzatu zitzaizkien eta erantzun horien arabera, erabaki batzuk hartu ziren. Erabaki horiek gauzatu, aztertu eta ebaluatuak izan dira.

IPDa bizia denez, eta inguruko egoera digitalak aldaketa asko izaten dituen, bi urtetik behin Plan hau aztertuko da inguru berrira egokitzeko asmoz.

## 3.- HELBURUAK ETA EKINTZAK

| 1. HELBURUA: Hezkuntza komunitatean teknologia berrien erabilera arautzen duen plan bat diseinatzea eta inplementatzea.                                                                                                    |                                                        |                                                                                           |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------|
| EKINTZAK                                                                                                                                                                                                                   | NOR                                                    | DENBORALIZAZIOA                                                                           |
| Proiektu digitalaren jarraipena egitea.                                                                                                                                                                                    | zuzendaritza + IKT                                     | Ekainaren bukaeran balorazioa egingo da.                                                  |
| 2. HELBURUA: Digitalizazio batzordea sortu eta antolatzea.                                                                                                                                                                 |                                                        |                                                                                           |
| EKINTZAK                                                                                                                                                                                                                   | NOR                                                    | DENBORALIZAZIOA                                                                           |
| Klaustrokide berriekin hitz egin eta batzordea ikasturtero sortu.                                                                                                                                                          | zuzendaritza + IKT                                     | Irailean egingo da                                                                        |
| 3. HELBURUA: Hezkuntza komunitatean zibersegurtasuna eta ziberhezkidetzak lantzea.                                                                                                                                         |                                                        |                                                                                           |
| EKINTZAK                                                                                                                                                                                                                   | NOR                                                    | DENBORALIZAZIOA                                                                           |
| <u>Ikaslegoarekin:</u><br>- (A) Lehenengo zikloan: pribatutasunaren eta ongizate emozional indibidual eta kolektiboaren garrantzia sistematikoki landuko dugu, etorkizunean mundu digitalean ere aplikatzen jakin dezaten. | -(A) Tutoreak+ IKTbatzordea<br>-(B). Begirada Programa | Ikasturte guztietan:<br>-Ikasleekin bi ordu saio batekoak.<br>-Irakasle eta gurasoekin bi |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                                                            |                                                        |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- (B) Zibersegurtasuna ikastaroa 2. eta 3. zikloan (<i>Begirada programa</i>)</li> <li>- (C) Sentsibilizazio saioak: Minieramangarrien erabilpen egokia eta <i>Netiketak</i> (ingurune birtual batean jarrera egokiak landu)</li> <li>- (A)Tutoretzak erabiliko dira sentsibilizazioa egiteko Lehen Hezkuntza osoan <i>Bizikasi</i> programatik abiatuta.</li> </ul> <p><u>Irakaslegoarekin:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- (B) Zibersegurtasuna ikastaroa (<i>Begirada programa</i>)</li> <li>- (D) Berritzegune Nagusiak ikasturtean zehar planteatzen dituzten formakuntzak</li> </ul> <p><u>Gurasoekin:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- (B)Zibersegurtasuna ikastaroa (<i>Begirada programa</i>)</li> </ul> | <p>“Heritik-herri ra konexio digitala”</p> <p>-(C) IKT batzordea</p> <p>-(D) Eusko Jaurilaritza (Garatu)</p>               | <p>orduko saio bakarra.</p> <p>- Ikasturtean zehar</p> |
| <b>4. HELBURUA:</b> Arbela digitalak eta eramangarriak erabiltzea, maila bakoitzari egokituta.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                            |                                                        |
| <p>EKINTZAK</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | <p>NOR</p>                                                                                                                 | <p>DENBORALIZAZIOA</p>                                 |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- <i>EKI</i> eta <i>KIMU</i> liburu digitalak erabili, programazioak aurrera eramateko, irakasleak horrela erabakitzen duenean.</li> <li>- <i>Classroom</i> aplikazioa minieramangarrien bitartez edo informatika gelan erabili, irakasleak horrela erabakitzen duenean (Lh4,5 eta 6).</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                  | <p>Irakaslegoa</p>                                                                                                         | <p>Ikasturte osoan zehar.</p>                          |
| <b>5. HELBURUA:</b> Programazioetan gaitasun digitala lantzen dela ziurtatzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                            |                                                        |
| <p>EKINTZAK</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | <p>NOR</p>                                                                                                                 | <p>DENBORALIZAZIOA</p>                                 |
| <p>Ikas-egoera guztietan baliabide digital bat gutxienez txertatzea</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                   | <p>Irakaslegoa</p>                                                                                                         | <p>Ikasturte osoan zehar.</p>                          |
| <b>6. HELBURUA:</b> Ikastetxeko informazioa partekatzeko plan bat diseinatzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                            |                                                                                                                            |                                                        |
| <p>EKINTZAK</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | <p>NOR</p>                                                                                                                 | <p>DENBORALIZAZIOA</p>                                 |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- (A)Web orrialdea sortu, martxan jarri eta eguneratu momentu oro.</li> <li>- (B)Egunerokotasunean irakaslegoak erabiltzen duen dokumentazioa partekatuta izan <i>Drive</i> eta <i>Sites</i> baten bitartez (faltak, asteko plangintza, programazioak...).</li> <li>- (C)Ikasleen ikasketa prozesuaren eboluzio- ebaluazio txostena digitala izan.</li> <li>-(D)Berritzegune Nagusiak planteatzen dituen online ikastaroak aurrera eraman.</li> </ul>                                                                                                                                                                                                                                                                                              | <ul style="list-style-type: none"> <li>- (A)IKT batzordea</li> <li>- (B)(C) BeA</li> <li>- (D) Irakaslegoa+ BeA</li> </ul> | <p>Ikasturte osoan zehar</p>                           |
| <b>7. HELBURUA:</b> Ikastetxeko irakasleen konpententzia digitala garatzeko estrategia diseinatzea.                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                       |                                                                                                                            |                                                        |
| <p>EKINTZAK</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           | <p>NOR</p>                                                                                                                 | <p>DENBORALIZAZIOA</p>                                 |
| <p>- A2, B1 eta B2 konpetentzia digitalaren ikastaroan parte hartu zuten irakaslegoaren %100ak gaindituta, garatutako gaitasunak</p>                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                      | <p>- Irakaslegoa</p>                                                                                                       | <p>Ikasturtean zehar</p>                               |

|                                                                                                                                                                                                           |                       |                                        |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|----------------------------------------|
| egunerokotasunean aplikatzea (CANVA, bideo tutorialak, audioak... erabiliz)                                                                                                                               |                       |                                        |
| <b>8. HELBURUA:</b> Irakasleentzako formakuntza plana inplementatzea.                                                                                                                                     |                       |                                        |
| EKINTZAK                                                                                                                                                                                                  | NOR                   | DENBORALIZAZIOA                        |
| - A2, B1 eta B2 gaitasun digitala ez duten irakasle berriei lortzeko aukera eman eta laguntza eskaintzea.                                                                                                 | - BeA                 | - Berritze nagusiak eskaintzen duenean |
| <b>9. HELBURUA:</b> Ikastetxean baliabide didaktiko digital irekiak antolatzeko espazioak sortzea eta erabiltzeko prozedurak zehaztea.                                                                    |                       |                                        |
| EKINTZAK                                                                                                                                                                                                  | NOR                   | DENBORALIZAZIOA                        |
| - Barneko formakuntza saioetan ebaluaziorako erraminta digitalak sortu eta ebaluatu (errubrikak, ebidentziak jasotzeko txantiloak...) eta drivean partekatu.                                              | Klaustroa             | Ikasturtean zehar                      |
| <b>10. HELBURUA:</b> Ikastetxeko gailuen kudeaketa eta mantenurako prozedurak zehaztea.                                                                                                                   |                       |                                        |
| EKINTZAK                                                                                                                                                                                                  | NOR                   | DENBORALIZAZIOA                        |
| Baliabide digitalen mantenua.                                                                                                                                                                             | - IKT arduraduna+ CAU | Ikasturtean zehar                      |
| <b>11. HELBURUA:</b> Ikastetxeko biltegi eta sare digitala antolatzea eta eguneratzea.                                                                                                                    |                       |                                        |
| EKINTZAK                                                                                                                                                                                                  | NOR                   | DENBORALIZAZIOA                        |
| - Biltegi digitala sortuko dugu ikasleek egindako ebidentziak jasotzeko eta gordetzeko.<br>- Tutoretza Plana aurrera eramango da eta biltegi birtual bat sortuko dugu material digitalarekin (bideoak...) | Irakaslegoa           | Ikasturtean zehar                      |
| <b>12. HELBURUA:</b> Beste ikastetxeekin saretzea irakaslegoak sortutako materiala eta informazioa partekatzeko helburuarekin.                                                                            |                       |                                        |
| EKINTZAK                                                                                                                                                                                                  | NOR                   | DENBORALIZAZIOA                        |
| - Beste ikastetxe batzuen irakasleekin, <i>Sites</i> bat partekatu irakaslegoak sortu duen materiala partekatzeko.                                                                                        | - BeA                 | Ikasturtean zehar                      |
| <b>13. HELBURUA:</b> Ikastetxean teknologia digitalen erabilerari buruzko informazioa eta hausnarketa trukatzeko.                                                                                         |                       |                                        |
| EKINTZAK                                                                                                                                                                                                  | NOR                   | DENBORALIZAZIOA                        |
| - (A)Mugikorren eta erloju adimentsuen inguruko protokoloa sortu eta aurrera eraman.                                                                                                                      | - (A)IKT batzordea+zu | - (A)2024an idatzi da.                 |

|                                                                                                                                              |                                    |                         |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------|-------------------------|
| - (B)Berritzegune Nagusiak planteatzen dituen ikastaroak eta jardunaldietan parte hartu eta informazio trasbasea egin ikas komunitatearekin. | zendaritza<br>-(B)Zuzendari<br>tza | - (B) Ikasturtean zehar |
| <b>14. HELBURUA:</b> IPDaren balorazioa egitea.                                                                                              |                                    |                         |
| EKINTZAK                                                                                                                                     | NOR                                | DENBORALIZAZIOA         |
| - Balorazioa egiteko erraminta sortu                                                                                                         | - IKT batzordea                    | Ikasturte bukaeran      |

#### 4.- IKASTETXEAK ERABILITAKO APLIKAZIOAK

Ikasleek lehen hezkuntza bukatzen dutenean, digitalizazioaren inguruan jakintza batzuk barneratuta izan behar dituzte (irteera profila). Ordenagailuen erabilpenaz haratago, beharrezkoak diren beste gaitasun askotan ere trebatu behar dira etorkizunari aurre egiteko: nortasun digitala, pasahitzen kudeaketa, *ciberbullying*-a.... Jarraian, Izarra Herri eskolan erabiltzen ditugun baliabide digitalak daude, mailakatuta:

| DIGITALIZAZIOA IRTEERA PROFILA                                                                                                                                                                                                                                              |                                                                        |                                                                                                         |                                                     |         |         |         |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------|---------|---------|---------|
| Informazioa bilatu eta antolatu                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                        | zer landu?                                                                                              | Baliabideak                                         | 1.ZIKLO | 2.ZIKLO | 3.ZIKLO |
| Bilaketa gidatuko estrategia errazak erabiltzen ditu informazioa eskuratzeko (hitz gakoak, informazio garrantzitsuenaren analisia, datuen antolamendua), jarrera kritikoarekin, informazio-beharrak identifikatuta, eta fitxategiak eta edukiak gordeta eta berreskuratuta. | Interneten bilaketa egitea                                             | Bilaketa errazak, irakaslearen laguntzaz                                                                | Txikipedia, Google education, DuckDuckGo, Ecosia... |         | X       | X       |
|                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                        | Nabigatzaile eta bilatzaileen arteko ezberdintasuna ezagutu                                             | Firefox, Chrome... VS Google, DuckDuck              |         |         | X       |
|                                                                                                                                                                                                                                                                             | Informazioa jarrera kritikoarekin egitea                               | Informazio iturri ezberdinak erabili                                                                    | Txikipedia, Google education, DuckDuckGo            |         | X       | X       |
|                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                        | Informazio iturriaren fidagarritasuna aztertu                                                           | Fake News                                           |         | X       | X       |
|                                                                                                                                                                                                                                                                             | Fitxategi eta edukiak modu antolatu baten gordetzea eta berreskuratzea | Online informazioa modu antolatu baten gorde (Karpetak sortu, fitxategiak kopia, ezabatu, mugitu...)    | Drive eta mahaigaina                                |         | X       | X       |
|                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                        | Online edo mahaigainean lan egitearen ezberdintasunak ikusi                                             | Sistema eragilea VS Drive                           |         | X       | X       |
|                                                                                                                                                                                                                                                                             |                                                                        | Ordenagailuan informazio modu antolatu baten gorde (Dokumentuak deskargatu, karpetak sortu, fitxategiak | Sistema eragilea VS Drive                           |         | X       | X       |

|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                          |                                                                                           |                                                                       |   |   |   |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------|---|---|---|
|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                          | kopiatu, ezabatu, mugitu...)                                                              |                                                                       |   |   |   |
| Edukiak Sortu                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                           |                                                                                          |                                                                                           |                                                                       |   |   |   |
| Norberak edo beste batzuek sortutako edukia sortzen eta editatzen du, integratzen eta berregiten du, hainbat formatutan (testua, taula, irudia, audioa, bideoa, programa informatikoa...), ideiak, sentimenduak eta ezagutzak adierazteko tresna digitalak erabiliz, jabetza intelektual eta egile-eskubideak errespetatuz eta modu antolatuan gorde eta berreskuratuz. | Hainbat formatuetan edukiak sortzea                                                      | Testu prozesatzaileak erabili                                                             | LibreOffice Writer, Google Docs, Microsoft Word...                    |   | X | X |
|                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                         |                                                                                          | Aurkezpenak sortu                                                                         | LibreOffice Print, Google Aurkezpenak, PowerPoint, Canva, Genially... |   | X | X |
